



Andoain, zaintza-herria

Zaintza azoka antolatu zuten Andoainen, aurreko asteburuan, "Elkarren ondoan, zaintzen duen herria" izenburupean / 8-9

AIURRI

Sorterrian ez dute ahaztu

Amaia Agirre mendi-zinemaldia, datorren astean, Urnietan / 13

Korrikaren 24. edizioa
aurkeztu du
AEK-k,
"Euskara gara"
lemapean / 4

Iker Laskibar
entrenatzaileari
elkarrizketa,
Urnieta-Euskalduna
partidaren atarian / 11



**AURREKONTU IREKIEN
PARTAIDETZA
PROZESUKO
BOZKETA FASEA**

**INFORMAZIO KARPA: Azaroak 14, ostirala
Etxeberri plaza: 10:00-14:30 / San Joan plaza: 17:00-20:00**



ABELTZAINITZA

Dermatosi nodularra, behizainen kezka

Dermatosi nodularrak behi aziendari erasaten dio eta oso kutsakorra da

Erredakzioa AIURRI

Gaur gaurkoz, Euskal Herriko baserrien atarira ailegatu ez bada ere, kezka sortu du behizainen artean Dermatosi nodular deituriko gaixotasunak: behi-aziendari eragiten dion gaitz birikoa da, kutsakortasun maila handikoa eta nagusiki euli eta eltxo espezie jakin batzuk transmititzen dute, baita zenbait kaparra motak ere. Asteasuko Bulano baserrikoa da Mikel Arteaga eta tentuz begiratzen dio gaitzari, Aiurriren hamaboskarirako emandako elkarrizketan azaldu bezala. Haren esanetan, azaleko infekzioa eragiten die behiei gaixoaldiak: nodulu handiak ateratzen zaizkie bizkarraldean, sabelean, errapeetan... Sukarra eragiteraino. Ondorioz, immunitate-sistema ahultzen zaie, jateko gogoa galtzen dute ugaztunek eta esne-behien kasuan, ekoizpena asko jaisten zaie: "Ez dakigu askoz gehiago gaitzaren gainean; eragina, iraupena... Botika jarrita ez dela sendatzen dakigu eta erraz zabaltzeko gaitasuna duela".

Mediterraneo zeharkatuta iritsi zen duela urte batzuk gaitza Europara: Egipto, Turkia, Grezia, Italia, Frantzia... Etxetik gertuen atzemandako kasua Gironan (Herrialde Katalanak) izan da, urri hasieran.

"Gogorra" egiten zaio Arteagari, momentuz, infekzioari aurre egiteko hartutako neurri

nagusia: "Ukuilu batean dermatosi nodular kasu bat agertzen bada, ukuiluko animalia guztiak hil eta erraustu behar dira. Zenbait hilabetez ukuilua hutsik eduki behar da, eta garbiketaketak egin". Alderdi ekonomikoari ez ezik, kolpe emozionalari ere erreparatu dio Arteagak, ilusioari eta gogoari eustea "zaila" dela iritzita: "Mingain urdinaren zortzigarren serotipoa ezagutu dugu dagoeneko; gaixotasun hemorragikoa ere iritsi zen eta, orain dermatosia. Erabateko tentsioan gaude. Larrean dabilen behia geldirik ikusten badugu, larritu egiten gara azken urteotan".

Horren aurrean, prebentzio modura, txertoa eskatzen dabilen baserritarrak, baina momentuz horretarako baimena izango dute, Europaren aginduz, soilik, 50 kilometro baino gutxiagora kasuren bat agertu ezean: "Agroseguruek ez dute gaixotasun hori katalogatuta, eta ez dute erantzuten", azaldu du Arteagak, "ondorioz, administrazioak babesen bat jarriko zain gaude". Bien bitartean, ahalik eta prebentzio gehien hartuta, adi egongo dira baserritarrak.

**NODULU HANDIAK
ATERATZEN ZAIZKIE
BIZKARRALDEAN,
SABELEAN,
ERRAPEETAN...**

ALBISTE DA

Atzera egin du Mendiko Haizie enpresak

Buruntza mendiko lurretan haize-errotak jartzeko asmoa agertu zuten 2024an

Aiurri.eus ESKUALDEA

Argia aldizkariak azaroaren 4an argitaratu bezala, Mendiko Haizie enpresak uko egin dio Buruntza mendian parke eolikoa eraikitzeko proiektuari. Harrobiaren gertutasunagatik, Eusko Jaurlaritzak hainbat neurri hartzera derrigortzen zuen enpresa, eta proiektua bertan behera uztea erabaki du.

2024an agertu zuten Mendiko Haizie enpresak Buruntza mendian parke eoliko bat eraikitzeko asmoa. 2024ko abenduaren 10eko Euskal Herriko Boletín Ofizialean argitaratu zen proiektu eolikoaren lehia eskaerari zegokion iragarkia, eta prozedura martxan jarri zen.

Horren arabera, proiektuan planteatutako aerosorgailuak Buruntzako harrobiaren esplora-



Buruntza mendia. AIURRI

tazio-eremuaren gaineko ertzean kokatzen ziren. Horrek harrobiaren esplotazio asmoei eragiten zenez, harrobiaren jabe "Sociedad Financiera y Minera

S.A." enpresak erreklamazioa egin zuen.

Ondorioz, Jaurlaritzak baldintza ezberdinak zehaztu zituen aerosorgailuak kokatu ahal izateko. Besteak beste, aerosorgailuen kokapenaren inguruko neurria zehaztu zuten; harrobiaren esplotazio eremuko edozein puntutik aerosorgailuaren altuera eta erdiko gutxienezko distantzia koka zitezkeen errotak. Zehatzago esateko, aerosorgailuen altuera osoa 189'5 metrokoa aurreikusten zenez, harrobiaren edozein esplotazio gunetik gutxienez 284 metroko distantziara jartzea eskatzen zuten horrek.

Baldintza betez gero, ordea, Buruntzako Herrixka Gotortuaren guneko arkeologikoaren babes eremura sartuko lirateke eta mendiaren gainaldeko magalaren parte handi batean halako azpiegitura handiak jartzea debekatzen du babesak.

Egoera horrela, Argiak jakinarazi zuenez, Mendiko Haizie enpresak proiektua bertan behera uztea erabaki du.

"Dena ematen dugu"

"Dena ematen dugu" leloa daraman elikagaien bilketa egin zuten aurreko asteburuan, Andoainen eta Gipuzkoako hainbat herritan. Laguntzaile askoren lanari esker egin zuten udalerriko hainbat merkatalguneetan. Argazkian, Pili Lopez eta Marian Conde boluntarioak ageri dira. Helburua zehatza zen: Gipuzkoako Elikagai Bankuaren biltegiak betetzea.



AIURRI



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietia).
Diseinua: Goiena / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.



IN MEMORIAM

Manuel Oiartzabal Aginagalde, Sorabillako apaiza

35 urte zituela heldu zen Andoainera bizitzera, eta Sorabilla auzoan eman zituen urte gehienak



Sorabillako auzokideek omenaldia egin zioten, udaberian. SORABILLA AUZO ELKARTEA

Xabier Lasa ANDOAIN
Iazko urriaren 6an hartu zuen erretiroa, ofizialki. Hain zuzen egun hartan, Andoaingo kristau komunitateak Manuel Oiartzabali, eta horrekin batera, Iñaki Zabaletari eta La Salle Berrozpeko ikastetxeko Rikardo Fuster, Manuel Udabe, Joxe Mari Mujika eta Nazario Maiz salletarrei agurreko ekitaldia eskaini zien.
San Martin parrokian ospatu zen aitortza-ekitaldi hura, eta bertan, Oiartzabalek hitza hartu, eta andoaindarrei eta sorabillatarrei eskerrak eman zizkien, “hartzen dena, ematen dena baino askoz gehiago baita”. Andoainen mende erdia bazeramala gogoratu zuen Oiartzabalek.

“35 urte nituela heldu nintzen Andoainera, eta bi hamarkadetan, San Martin parrokiako erretorearen laguntzaile izan nintzen. Horietan, Berrozpen eta Juan Bautista Bataiatzailea zahar egoitzan ere mezak emateaz arduratu nintzen. Ondoren, Sorabillako San Martin elizan eman zidaten plaza. Geroztik, ia 30 urte egin ditut bertan”.
Egun hartan, Andoainen apaiz gisa ibilbide luzean egindako Iñaki Zabaletak eta Manuel Oiartzabal berak erretiroa ofizialki hartu bazuten ere, mezak ematearen ardurari eutsiko ziotela aitortu zuten biek. Hain zuzen, Oiartzabalek Sorabillako erretoretxean bizitzen eta ber-

tako San Martin elizan mezak ematen jarraitu zuen.

Sorabillako auzokideek martxoan omendu zuten
Bestalde, joan den martxoaren 2an, Sorabillako auzokideek omenaldi goxoa egin zioten Manuel Oyarzabali, Sorabilla Auzo Elkarateak antolatuta.

Xabier Laka eskultoreak landutako artelana oparitu zioten, “elkarrekiko eskuzabaltasunaren adierazgarri”. Omenaldi-ekitaldian, Iruñeko Mirua abesbatzak meza nagusia kantatu zuen, eta kontzertua eman zuen ondoren. Sorabillako Auzo Elkarateak zabaldu zuen oharrean azaldu zuenez, “Manuel Oyarzabal Aginagalde, Pirinioetako Aran bailarako Les herrian jaioa, gazterik etorri zen Iruna bere familiarekin. Apaiz izan nahi eta mutil bizkorra zenez, Lovainako Unibertsitatean Filosofia ikasteko beka lortu zuen. Filosofia-ko irakasle izan da Manolo urte askotan. Apaiz gisa, Azpeitiko Mantxinbentan izan zen lehenbizi, baina urterik gehienak Andoainen egin ditu, goiko parrokian hogeit urte eta gehiagor eta azken 30 urteak Sorabillako parrokian”.

Elkarateak honela definitu zuen Oiartzabal: “Gizon patxadatsua, entzuten dakiena eta gertukoa da Manolo denontzat. Bere izaera abegikor eta auzoko bizitzan sakon txertatua dagoena”.

ERRETIROA HARTUTA, SORABILLAKO ERRETORETXEAN BIZITZEN JARRAITU ZUEN

Palestinarekin elkartasuna

Joan den azaroaren 7an, ostirala, elkartasun keinua izan zuen Palestinaren alde Urnietan sorturiko gazte-komiteak. Horrela, arratsaldeko 19:00etan egin zuten bilkura Plazido Muxika plazan, mural-margoketa egiteko, Palestinaren banderarekin. Bien bitartean, Atxukarro DJ-a izan zen plazan bertan iluntzea giroten.



ALBISTE DA



V16 aparatua. DGT

Datorren urtetik aurrera, derrigorrezkoa

Errepidean arriskua seinalatzeko derrigorrezkoa izango da ibilgailuek V16 gailua izatea

Erredakzioa ESKUALDEA

Datorren urtarilaren 1etik aurrera, errepidean arriskua seinalatzeko neurri berri gisa, derrigorrezkoa izango da ibilgailuek V16 aparatua izatea, Espainiako Trafiko Zuzendaritza Nagusiak agindu bezala. Zer da, baina, V16 aparatua? Zertarako balio du?

Larrialdiko ohiko triangeluak ordezkatuko ditu V16 aparatuek eta hori izango da 2026. urtean errepidean arriskuaz ohartarazteko legezko gailu bakarra. Hori koloreko baliza txikia da V16 aparatua eta 360 gradutan intentsitate handiko argi bat igortzeko gai da, aldizkakotasunez, 30 bat minutuz gutxienez. Hemezortzi hilabeteko edo gehiagoko iraunkortasuna duen pila edo bateria bat du.

“Aurrerapausoa” delakoan da Trafiko Zuzendaritza Nagusia, bide-segurtasuna indartzearen eta istripuen murrizketaren bidean. Hala, funtzio bikoitza izango du balizak, erakundearen hitzetan: batetik, gidariei errepidean ibilgailu bat geldirik dagoela ohartarazteko xedea du intentsitate handiko argiak. Bestetik, ibilgailuaren kokapen zehatza jakinaraziko dio DGT 3.0 plataformari eta, horrela, paneletan, informazioa igorri ahal izango da, bai eta errepideko gainerako erabiltzaileen nabigazio-sistemetan ere: “V16

balizak ikusgaitasun fisiko eta birtuala ematen du, gure geolokalizazioa bidaltzeko duen gaitasunari esker”. Hala eta guztiz ere, ez da larrialdi-zerbitzuei abisua emateko gidariei erabiltzeko duten gailua, ez baitu horretarako gaitasunik.

Nola erabili behar da?

Ibilgailuaren eskularru-kaxan eraman beharko dute gidariei V16 baliza, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak argitu bezala: “Matxurarik edo istripurik izanez gero, segundo gutxi batzuetan aktibatuta ahal izango da”. Posible den heinean, gidariei ibilgailuaren sabaian ipini behar dutela adierazi du erakundeak: “Une horretan, ohartarazpeneko argi-seinalea igortzeaz gain, DGT 3.0 plataformara konektatuko da, kokapena denbora errealean transmititzeko eta bideko beste gidari batzuei egoeraren berri emateko”. Horrekin lotuta, erakundeak nabarmendu du erositako V16 balizak homologatuta egon behar duela eta konektagarritasuna izan behar duela DGT 3.0 plataformara.

IBILGAILUAREN GEOLOKALIZAZIO ZEHATZA EMANGO DU V16 APARAILU BERRIAK

Korrikaren 24. edizioa aurkeztu du AEK-k

2026ko martxoaren 19an abiatuko da Atharratzetik eta 29an amaituko da Bilbon

Erredakzioa ANDOAIN

"Zu eta ni euskara gara. Bat gara. Milioi bat euskaldun gara, eta gehiago izango gara. Biziberritzen den komunitate aske eta irekia gara, elkarrekin sortuko dugun etorkizuna. Alderik alde zeharkatuko dugun Eushal Herria gara". Esaldi horiek aurtengo mezu nagusitik aterata daude. Egunotan egin dute 24. KORRIKAREN aurkezpena eta, dagoeneko, ezagutarazi dute aurtengo omendua: Errigora. "Ekimen herritarra da Errigora,

Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes ditu. Nafarroa hegoaldea du ardatz, eta euskara ofiziala ez den eremuan eragiten du, bertako berezko elikagaiei Euskal Herrian bidea emanez, euskaratik, euskararentzat eta euskaraz. Korrikak bezala, euskal herritar asko mobilizatzen ditu, eta lanean dihardu euskararen aldeko ekintzaileekin. Euskal Herri osoan da ezaguna, eta bat egiten du Korrikaren balioekin". Aurrerago, ibilbi-dearen berri emango dute.



AEK

Negozioaren jarraipena planifikatzeko formakuntza

Beterri-Buruntza Mankomunitateak doako lau formakuntza-saio eskainiko ditu, egunotan

Erredakzioa ANDOAIN

Erretiroa gertu duten eta beren enpresaren jarraipena landu nahi duten enpresaburuek edota langileek aukera izango dute negozioaren jarraipena eta legatua modu planifikatuan lan-

tzeko. Formakuntzez gain, Mankomunitateak doako aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen du etengabe. Hitzordua eskatzeko enpresa@beterriburuntza.eus helbidera idatzi daiteke, edo 943 244 523 telefonora deitu.

Lau saio, azaroan

Saio guztiak online izango dira, goizeko 09:00etatik 11:00etara. Aurretik izena eman behar da.

- Azaroak 14, ostirala: "Zuzendaritza-trantsiziorako formulak".
- Azaroak 18, asteartea: "Familia protokoloaren tailerra".
- Azaroak 20, osteguna: "Langileen jabetza lantzeko tailerra".
- Azaroak 25, asteartea: "Ezagutza kritikoa, gardentasuna eta konfiantza transferitzea."



Formakuntzez gain, Mankomunitateak doako aholkularitza eskaintzen du. AGENTZIA

1953an jaiotakoen bilkura

1953an jaiotako andoaindar taldea ageri da argazkian, Orioko Sarasua Bodegoiaren kanpoaldean. 72 urte atzera jaiotakoek urteroko ohiturari eutsi eta aurreko asteburuan egin zuten bazkaria.



1953KO KINTOAK

ANDOAINO EUSKERA,
BIHOTZETIK KALERA!



AZOKA

Azaroak 15 ★ ANDOAINGO GOIKOPLAZAN

Gastronomia eta artisau azoka + TONBOLA

11:00: Azoka
irekiera

12:30: Anuk
eta Eleneren
kontzertua

16:30: Toka
txapelketa

18:00: Irrintzi
txapelketa

19:00: Komerik
taldearekin
erromeria

**Zatoz
tonbolan
parte
hartzera!**

Otorduak, eskapadak, talasoterapia
saioak, abentura, kirola, literatura,
musika, kontzertuak... eta askoz
gehiago!

MILAKA SARI ZOZKETAN!

**larunbat
honetan!**

*Iker
Etxebesteren
Brew & Roll
garagardoa eta
Txomin Parrilaren
jakiak*

Antolatzailea:



Babesleak:



ANDOAINO UDALA



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna
harrera@larramendibazkuna.eus



Hainbat lagun elkartu zen, astearte iluntzean, Lopez de La Calle parkean dagoen 'Askatasunari' eskulturaren aurrean. AIURRI

Memoriaren eguneko ekitaldia, Andoainen

Elkarbizi taldeak, Memoriaren eguna iristearekin batera, indarkeriaren biktimak gogoratzeko ekitaldia antolatu ohi du Lopez de La Calle parkean dagoen 'Askatasunari' eskulturaren aurrean

Erredakzioa ANDOAIN

Azaroaren 10a Memoriaren Eguna da, eta hainbat ekitaldi antolatzen dira Hego Euskal Herrian. Andoainen Elkarbizik antolatu ohi du hitzordua. Hainbat herrikide hurbildu zen asteartean, haien artean, PSE-EEko, EAJ-PNVko eta Podemoseko zinegotziak. Elkarbiziren izenean bertaratu zirenei eskerak eman ondoren, adierazpena irakurri zuen Mikel Arregik: "Memoria gogoratzea ez da iragana begiratzea soilik. Orainean arreta jartzeko eta etorkizunarekin konprometitzeko modu bat da. Eta, horretarako, kontuan hartu beharrekoak beti biktimak izango dira. Biktima guztiak, inongo hierarkiarik gabe".

"Egia, egi osoa"

Egiaren aldeko aldarrikapena egin zuen bere adierazpenean Arregik: "Egia, egia osoa, memoria historikoari dagokiona, abusu polizialei, torturari, indarke-



Mikel Arregi. AIURRI

ria polizialari, ETaren indarkeriari, biktimekiko mespretxuari, mehatxuei eta umezurtzei eta dagokien egi osoa". Justizian eta erreparazioan sakontzeko dei egin zuen, azkenik: "Iraganari zurikerian erori gabe begiratuko diona. Justizia sortzailea eta



Mari Paz Artolazabal. AIURRI

eraikitzaile bat. Justizia eta erreparazioa, norabide berdinean, bakea maiuskulaz finkatzeko". Aurreko urteetan egin bezala, biktimen omenezko lore-eskaintzan parte hartu zuen Mari Paz Artolazabalek. Hitzordua txalo artean amaitu zen.

"Mila Esker!" jaialdia antolatu dute Andoaingo Gaztetxean

Ruben Genbeltzu andoaindarraren eta Jon Lizarribar urnietarraren aldeko elkartasun-jaialdia da

Erredakzioa ANDOAIN

2003an atxilotu eta tratatu txarrak pairatu ostean, epaibide luzea izan du Ruben Gelbeltzu andoaindarraren eta Jon Lizarribar urnietarraren kasuak. Gas-tu ekonomiko handia sortu da urte horietan guztietan. Elkartasun talde baten babesa izan dute eta, prozesua amaitzeaz delat, elkartasunezko jaialdia antolatzea erabaki dute lagunek eta senideek. Aurreko ostiralean egin zuten jaialdiaren aurkezpen-ekitaldia Andoaingo Goikoplazan.



Jaialdiaren afitza. ANDOAINGO GAZTETXEA

Abenduak 13, larunbata

Andoaingo Gaztetxean izango da jaialdia. Sarrerak 15 eurotan salgai daude Andoaingo Irunberrin eta Lanbroan, Urnietako Matxon, Hernaniko Zintzarrin eta Donostiako eta Sakanako hainbat tokitan.

18:00 Jaialdiaren hasiera: Señor No, The Capaces, John Dealer and the Coconuts, Gaizkiñe, Flash, The Martens eta Ezekiel DJa.

21:00 Bokata-afaria.

23:00 Elkartasun-argazkia.

Andoaingo Mugimendu Feministaren hitzorduek

Hirurak azaroan, Indarkeria Matxisten Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan

Erredakzioa ANDOAIN

Hiru hitzorduko egitaraua osatu du azaroari begira Andoaingo Mugimendu Feministak, Indarkeria Matxisten Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan.

Dokumentala

Azaroaren 20an, "Condenadas en Gaza" dokumentalaren proiektzioa egingo dute Basteron, arratsaldeko 18:30ean: "Minbiziaren diagnostikoak munduko edozein lekutan astindu eta larritasuna eragiten ditu, baina, Gazako Zerrendan, kasu askotan, heriotza-zigorrarekin parekatu daiteke. Filmak tratamendua jaso ezinik dauden hainbat emakume palestinarrengana hurbiltzen gaitu".

Kontzertua

Hari horri tiraka, azaroaren 21ean, Baztango Bidenabar tal-



Artxiboko irudia. AIURRI

dearen kontzertua izango da Irunberrin, iluntzeko 20:30ean hasita.

Elkarretaratzea

Hala, azaroaren 25ean, elkarretaratzea egingo dute Goikoplazan, arratsaldeko 19:00etan.

“Komunitatearentzat lan eginez, herritarrek zentroa gertu sentitzea nahi dut”

JOKIN RAMOS GONZALEZ FISIOTERAPEUTA

Zerbitzua zabalik du, jada, Laguntza fisioterapia-zentroak: Zubitxo plazan dago kokatuta, Idiazabal kalera joateko pasabidean



Honako hau izango da ordutegia, oraingoz: astelehenetik ostegunera, 08:00etatik 13:30etara; ostiraletan, 15:30etatik 21:00ak arte.

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Berriki ireki ditu ateak herrian Laguntza fisioterapia zentroak, Zubitxo plazan. Jokin Ramos

Gonzalez fisioterapeuta urnietarra dago proiektuaren atzean: joan den ostiralean egin zuen irekiera-festa eta harrera beroa

jasota, prest da, aspalditik buruan zebilkien ideiarri forma emanda, pixkanaka, martxa hartzeko.

Ostiralean ireki zituen ateak ofizialki Laguntza fisioterapia zentro berriak. Zer moduzko harrera jaso zenuen?

Zoragarria izan zen, eskerrak eman nahi dizkiot etorri zen jende guztiari oso babestua sentitu baintzen, gainera proiektu honek aurrera egin izana beraiei esker ere bada.

Dagoeneko, martxan da Laguntza fisioterapia. Zerk bultzatu zaitu zure zentro propioa irekitzera?

Aspalditik buruan nuen ideia bat zen eta iaz pausoa ematera animatu nintzen. Orain arte, oro har, hiru adar desberdinetan egin dut lan: batetik, klinikako lanetan, min eta lesio traumatologikoak landuz; bestetik, kirol fisioterapietan; eta, azkenik, etxez etxe, hauskortasun-sindromearen aurkako ariketa terapeutikoak eginez. Hirurak zentro propio batean konbinatzeko momentu egokia iruditzen zait.

Urnietakoa zara zu, sortzez. Gertutasuna ekartzen al dio horrek zentroari?

Hori da behintzat helburuetako bat: lana komunitatearen ongizaterako eginez, herritarrek zentroarekiko gertutasuna sentiaraztea.

Fisioterapeuta izateaz gain Osteopatia ikasketetan ere bazabiltza murgilduta. Zer ematen dizu bi diziplinak uztartzeak?

Ez zait bien arteko ezberdintasuna egitea gustatzen, lehenago egin ditudan espezializazioak eta kurtsoak bezala, baloraziorako eta tratamendurako aukera gehiago izatea da helburua, ikuspegia handitzeko bidean. Osteopatiaren kasuan, terapia manualean trebetasuna irabazteaz gain, biomekanika eta fisiologia hobeto ulertzen laguntzen ari zait, gorputzaren sistemak osotasun batean ikusteko.

Zein zerbitzurekin egingo du topo hona gerturatzen denak?

Pazienteari zuzendutako tratamendu indibidualarekin, kasu bakoitzean bere helburuak lortzeko behar dituen balorazioak eta tratamenduak eginez. Horretarako, arrazoiketa klinikoa, ekografia, eskuzko terapia, terapia inbaditzailea (puntzio lehorra eta neuromodulazioa) darabilzkit, bai eta ariketa terapeutikoak ere.

Gaur egun, gehienbat, zer dela eta jotzen du jendeak zuregana?

Denetik izaten dut, esan bezala, biztanleriaren sektore desberdinekin egiten dut lan eta. Orokorrean, dituzten minak eta lesioak tratatzera edo prebentzioa egitera etortzen dira. Kirolarien artean, horiek tratatzeaz gain, deskargak egitera edo muskulatura aktibatzeaz etortzen direnak ere badaude eta, adinekoei begira, beren bizi kalitatea hobetu eta hauskortasun-sindromea atzeratzen dituzten ariketak egiteko jo ohi dute niregana.

Zenbateko kostua dute saioek?

Ordubeteko saioak 50 euroko kostua daukate eta, aldiz, orduerdikoek 30 eurokoa.

Nola egin beharko dute herritarrek Laguntzan hitzordua eskatzeko?

Aukera asko dituzte hitzordua eskatzeko: Laguntza fisioterapiaren web-orrian galdetegi bat betez, Instagram bidez, WhatsApparen bidez edota telefonora deituta honako bi zenbaki hauetako batera: 688 734 113 eta 943 036 070.

LAGUNTZA FISIOTERAPIA ZENTROA URNIETAKO ZUBITXO PLAZAN DAGO

LV. **BINAKAKO**
ERREMONTA TXAPELKETA 2025

AZAROAK 15
LARUNBATA · 16:30
GALARRETA JAI ALAI

1. PARTIDA (2 MAILAKO BINAKAKO TXAPELKETA)
**AIESTARAN VII · AIESTARAN VI VS
DESKARGA · MARTIRENA**

2. PARTIDA (BINAKAKO TXAPELKETA NAGUSIA)
**JABALERA · JUANENEIA VS
EZKURRA II · LARRAÑAGA**

3. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)
**ALDABE · ZUBIRI VS
GOIKOETXEA V · AZPIROZ**



Ekitaldiaren amaieran, azokako parte-hartzaile guztiak, antolatzaileak, herri elkarteak, hizlariak eta herritarrek, argazkirako bildu ziren. AIURRI

Herri zaintzailea izateko bidean da Andoain

Zaintzen aurkezpen azoka egin berri da Andoainean, Udaleko Berdintasun Sailak eta Zaintza Herri Taldeak antolatuta. Euskal herriko lau ekimenen aurkezpenak eta herriko elkarteek adostutako manifestuaren irakurketak osatu zuten jardunaldia

Xabier Lasa ANDOAIN

Oihana Jauregi eta Jone Larrañaga Zaintza Herri Taldeko kideek aurkeztu zuten azoka. “Nola lotzen dira zaintza eta azoka bat?” galderari erantzun nahi izan zioten, lehenbiziko hitzartze horretan. “Gauza berria da hori, eta bide berri bat abiatu nahi dugu gaur. Baina dagoeneko eginda dagoen bide baten emaitza ere bada. Bi urte badi-ra jada gogoeta bat egiten hasi zela herrian: nork zaintzen ditu laguntza behar duten herritar-rrak? Zein baldintzatan? Nola egin dezakegu sistema kapitalistak erabat baldintzatzen duen zaintzen eredua aldatzeko? Jende asko bildu zuen gogoeta izan

zen. Bilerak egin ziren, trukatu ziren ideiak eta hori dena artikulatzen hasteko garaia da; Udalak, bere aldetik (erakundeek); eta herritarrok (komunitateak), gure aldetik ere bai. Proposamen zehatzak egiten hasteko garaia da”.

Solasaldiak, bidegileen eskutik “Dagoenetik abiatuta eta aurrera begira zer gehiago egin liteke?” galderari erantzun nahian, eta gogoeta kolektiboa bultzatu nahian, Euskal Herrian zenbait lekutan martxan dauden ekimenak, “adibide inspiratzaileak” gonbidatu zituzten azokara, beren eskarmentua azal zitzaten.

Ondarreta herri eskolako gela banatan prestatu zituzten hitzaldi-solasaldiak. Lauak ere aldi berean egitekoak zirenez, Jauregi eta Larrañaga aurkezleek, azokara bertaratutakoei, batera edo bestera joateko gonbita luzatu zieten. Eta horretarako, galderak lau haizetara zabaltzearen formula erabili zuten berrirori ere.

Matia Fundazioko ordezkaria zen hizlarietako bat, eta honela aurkeztu zuten: “Nahi duzu pentsatzen hasi nola nahi duzun zaindu zaitzaten etorkizunean? Dependentsia egoeratan dauden pertsonen arretak kezkatzen zaituela? Egoitza eta zerbitzuetako eredu asistentziala aldatu

eta eredu gizatiarragoak behar direla uste duzula? Bada, aukeratu ezazu Matia Fundazioko ordezkariak”.

Hernaniko Zabalduz kooperatibako bi kide izan ziren azokan: “Herritarren joera gero eta indibidualistagoak kezkatzen zaituela? Bizilagunak jada ezagutu ere ez ditugula egiten? Bakar-dade egoeran bizi den gero eta jende gehiago dagoela? Ondoko herritarren zaintza sareak nola antolatzen ari diren kontatuko digute Zabalduz kooperatibak”.

Iruñerriko Etxekide kooperatibako kideak izan ziren hiru-garren gonbidatuak. “Adinean aurrera zoazenean non eta nola bizi erabakitzen ari zarela? Argi duzula nagusien egoitza ez dela zure aukera? Alternatibak badaude, bizi-toki kolaboratiboak. Etxekide kooperatibakoei hori egin dute. Eta gaur hemen dira”.

Azkenik, Hernaniko Maitelan kooperatibako aurkezleen hitzaldia ere, galderekin bidez azaldu zuten aurkezleek: “Etxeko langilea zarela? Izan nahi duzula? Edo zaintzaile bat duzula enplegatuta eta bere egoeraz arduratuta zaudela? Irabazi asmoak dituzten enpresa handiez gain badaude beste alternatibak. Hernanin Maitelan kooperatiba sortu dute, adibidez, zaintzetan ari diren emakume migratuek. Horien esperientzia aplikatu daiteke Andoainean? Ideia gehiago baditugu? Nola jar litezke martxan?”.

Herriko taldeen manifestua, azokari amaiera emateko

Mezu ugari gizarteratzeko asmoz eratu zutela azoka aitortu zuten antolatzaileek. Era horretan, zenbait informazio-panel ipini zituzten Plaza Morean, ikusgai. “Andoainean jada zaintza eredu komunitarioan ari diren, ekimen, elkarte eta zerbitzuak baditugu, eta horiek identifikatu eta erakusgai daude panel hauetan”, adierazi zuten.

Lau hitzaldi-solasaldiaren ondoren, eta azokari amaiera emateko, jardunaldiko parte-hartzaile guztiak Ondarreta herri eskolaren jolastokian bildu ziren. Han, zenbait herritarrek elkar zaintzaren gaineko ikuskizun xaloa antzeztu zuten, eta ondoren, Andoainean lan egiten duten izaera anitzeko 41 eragile komunitarioak (ongizarte arloko elkarteak, kultur taldeak, ikasketak, elkarte gastronomikoak, kirol taldeak, guraso elkarteak...) adostu zuten manifestua irakurri zuten.

Etorkizunari begirako konpromisoek indarra duten manifestura herriko elkarte gehiago datozen asteetan batuko direla espero da.

ANDOAINEN LAN EGITEN DUTEN IZAERA ANITZEKO 41 ERAGILE KOMUNITARIO BAT DATOZ EKIMENAREKIN



Azokakoa hizlariak, Plaza Morean: Elisa Peredo eta Magali Obando (Maitelan kooperatiba, Hernani), Angel Angulo eta Kontxesi San Juan (Etxekide proiektua, Iruñerria), Maider Azurmendi (Matia Fundazioa), eta, Miren Berasarte eta Zuriñe Mindegia (Zabalduz kooperatiba, Hernani).. AIURRI

Azokaren amaierako adierazpena

“Herriarrok egiten dute bizi herria. Eta herriarrok ondo bizi behar dugu herria egiteko. Herria eta bizia. Soka berean lotuta datoz. Sareak egiten du herria herri, eta ELKARREN ONDOAN ematen diogu babesa elkarri.

Bizitzeko moduak asko aldatu dira belaunaldi bakarrean. Familiak txikitu egin dira, aldatu, berriak sortu, desagertu... Saretzeko moduak ere aldatu egin dira, digitalizatu... Ateak giltzaz itxen dituen belaunaldia da gurea, eta ate horien atzean ezkututzen dira askotan, sarerik gabe geratu direnak.

Sarea zulatu egiten baita, ahuldu, katramilatu... zaintzen ez bada. Sarea zaindu egin behar dugu zaindu gaitzan denok. Horregatik nahi dugu saretu eta herri zaintzaile bihurtu. ELKARREN ONDOAN zaindu gaitzen.

Orain edo gero, denok beharko dugu zaindu gaitzen. Zaintza denon eskubidea da. Eta horregatik da beharrezkoa eskubide eta behar hori txertatzea gure egiteko moduetan, antolatzeke eran, gure bizitzeko eran...

Bizitzaren erdigunean jarri nahi ditugu zaintzak, zaintzaren kontura menpekotasun berriak sortu gabe; zaintza, emakume,



Oihana Jauregi eta Jone Larrañaga Zaintza Herri Taldeko kideek aurkeztu zuten azoka, Plaza Morean. AIURRI

klase baxuko eta migratuen eskuetan subrogatu gabe. Zor historiko hori kitatu beharra dago, zaintzaileen lana aitortu eta gaur egungo antolaketa irauli. Baliabide publiko aski bideratu behar da lan hori duina izan dadin. Duin zaindu gaitzen. Duin zaindu dezagun.

Zaintza denon eskubidea da, bai. Eta zaintzak erdigunera ekartzea gure ardura ere bada.

Horregatik, hemen elkartu garenek honako konpromisoa hartu nahi dugu gaur:

Zainduko duen herri bateko herriar izan nahi dugula. Herri zaintzaile nahi dugula Andoain eta zaindu nahi dugula elkar. klase eta jatorri diferentetako Denok, adin, genero, herriar denak, parez pare eta ELKARREN ONDOAN saretuz”.

Lau gizarte ekimen, azokan

Euskal Herrian martxan diren gizarte ekimeneko lau esperientzia ezagutu ahal izan ziren, bere bultzatzaileek kontatuta, Andoaingo Zaintza azokan, esan bezala. Hona hemen lau ekimenen gaineko azalpen laburra, beren ahotik:

Kontxesi San Juan eta Angel Angulo (Etxekide, Iruñerria):

“Gure proiektuak adinekoen elkarlaneko bizitokiak ditu oinarrian. Etxebizitzekin lotutako espekulazioari aurre egiten dio, autogestionatua da, lankidetzan egindakoa da, komuneko espazioak pribatuak baino gehiago sustatzen ditu... Bizimodu zehatz bat bultzatzen du, non pertsona erdigunean jartzen den. Jakitun izanda hurkoarekin bizitzeak dituen onurak: elkarri laguntzen diogu, elkarrekin ikasten dugu, elkar aberasten gara... Azken eguna iritsi bitarte bizitzaz gozatzea lortzen dela horrela uste dugu”.

Elisa Peredo eta Magali Obando (Maitelan, Hernani):

“Kontziente gara gizarteak ez diola premiazkoa den arreta jartzen zaintzaren gaiari. Eta, alde horretatik, ezinbestekoa da herriararren sentsibilizazioa. Maitelan kooperatiba 2020an sortu zen, bi norabideko helburu sozialei erantzuteko asmoz: zaintzaren arloan eskualdean dauden premiei erantzutea, eta, emakumeen (migranteenak, batik bat) lan-baldintzak duintzea. Egun, hamazazpi emakumek egiten dugu lan kooperatiban, eta zaintza-lanetan ez ezik, garbiketan ere ari gara. Egin dugun bideak erakutsi digu kooperatiba tresna egokia dela egoera irregularrean bizi diren emakumeen egoera normaltzeko. Jada lehen genituenak baino lan-baldintza duinagoak lortu ditugu, erregimen orokorrean alta emanda gaude, eta ez etxeko zerbitzuaren erregimen berezian, izan ere, azken hori diskriminatzaileagoa baita eta zenbait eskubide ukatzen baititu”.

Maider Azurmendi (Matia Fundazioa):

“Zaintza behar duten pertsonen helarazten diegun zaintza-ereduaren gainean hausnarketa bat azaldu nahi izan dut Andoaingo azokan; hots, zer nolako lanketa egin beharko genukeen pertsona ardatz hartuko duen arreta-eredura igarotzeko. Izan ere, gaur egun daukagun erronka handiena zera baita: zaintza behar duen pertsona horri zerbitzuetatik erantzun partez, nolako bide-laguntza bermatu behar dugun bere indarguneak eta bizi proiektua jakin ditzagun, eta gainera, bere helburu pertsonalak aurrera eramanez. Azken batean, zerbitzuak lehenestetik pertsonen bizitzak lehenestera bidean egin beharrekoaren gainean hausnarketa partekatuta dut gaurko azokan, Andoainean”.

Miren Berasarte eta Zuriñe Mindegia (Zabalduz, Hernani):

“Herrietan zaintza publiko komunitarioa hauspotzea eta indartzea duen Auzosare proiektuaren berri ematera etorri gara azokara gaur. Gipuzkoako zenbait herrietan (Usurbil, Hernani, Zestoa, Hondarribia...) aurrera doan egitasmoa da, eta bi bidetatik jotzen du bere ekinak; batetik, bakartasun egoeran egon daitezkeen adineko pertsonekin lotutako esku-hartze planak egitea herriko bizitzara konektatzea, eta, bestetik, aktibatze komunitarioa sustatzea. Zaintzaren gaia elkar zainduta eta herriko herrira izan dadin da egitasmoak nahi duena egitasmoak, azken finean”.

www.aiurri.eus




Zaintza-azoka Aiurri.eus gunean: Bideo-sorta, ikusgai

Anoaindarrak eta urnietarrak, Behobia-Donostia lasterketan

ATLETISMOA Eskualdeko makina bat herritarrek hartu zuten parte, joan den igandeko Behobia-Donostian

Erredakzioa ESKUALDEA
Axubetekin egongo da batenbat oraindik, joan den igandean izandako lasterketa erraldoian parte hartzeagatik: 60. edizioa bete zuen hilaren 16an Behobia-Donostia lasterketak. Hala, bina lerroburu nabarmendu ditu aurten antolakuntzak. Batetik, Raul Celada (1:01:28) eta Katherine Tisamela (1:09:34) izan ziren nagusi kirol-hitzordu jendetsuan. Bestetik, “emakumezkoen parte-hartze errekor berria” iragarri

dute Fortuna Kirol Elkarteko kideek, aurten, % 33,6-koa izan baita. Kopuru hori % 50era igotzeko apostua egin nahi du antolakuntzak, datozen edizioei begira: “Badakigu anbizio handiko erronka dela, baina lor dezakegula uste dugu, eta urtero jarraituko dugu”. Behobiatik hasi eta Donostian helmugaratutako 26.128 korrikalarien artean, badira andoaindarrak zein urnietarrak. Jarraian, sailkapen ofizialeko zerrenda.



Javi Menta 15. gelditu zen. MENTA



Erronka amaituta, domina lepoan. PELLEJERO



Lagun artean egin zuten lasterketa. GOMEZ

SAILKAPENA		
ANDOAIN		
Postua	Izen-abizenak	Denbora
15	Javi Menta Martinez	01:04:58
149	Javier Lazcoz Dominguez	01:11:34
486	Peio Manterola Pavo	01:16:24
576	Eduardo Portillo Rasero	01:17:20
659	Julen Rivas Baztarrika	01:18:09
1007	Asier Dominguez Ramos	01:20:22
1075	Jon Gil Alvaro	01:20:51
1244	Axier Etxeberria Albisu	01:22:07
1245	Garikoitz Alberro Nuñez	01:22:09
1418	Sebastian Alejo Bianchi	01:23:04
2113	Oñatz Gonzalez Usarralde	01:26:18
2187	Josu Arregi Formentin	01:26:35
2361	Iñaki Arruti Iraola	01:27:21
2398	Roberto Salgado Larraza	01:27:30
2401	Ion Jauregui Artola	01:27:30
2461	David Elvira Gainzarain	01:27:45
3464	Igor Rabadan Amas	01:30:39
3550	Martxel Lekuona Garcia	01:30:53
3942	Iker Pernas Larrañaga	01:32:06
3949	Unai Pernas Larrañaga	01:32:07
4941	Unai Martinez Beloki	01:34:36
5233	Jonatan Santano Gutierrez	01:35:11
5364	Andoni Etxezarreta Sagastibeltza	01:35:27
5771	Patxi Nieto Gaztelu	01:36:20
5934	Sergio Palacios Mendez	01:36:41
5950	Mikel Collantes Ibáñez	01:36:44
6173	Eneko Idigoras Eizaguirre	01:37:06
6697	Alex Hernandez Merchan	01:38:08
7117	Unai Laskibar Hernandez	01:38:52
7141	Mikel Sanchez Valero	01:38:54
7164	Iñaki Etxeberria Barriola	01:38:56
7454	Ander Setien Iguaran	01:39:23
7456	Beñat Setien Iguaran	01:39:24
7471	Garazi Lopez Ubillos	01:39:26
7911	Marta Aramburu Iñigo	01:40:06
8215	Maidar Arabaolaza Aguirrezabal	
8412	Paula Sanchez Sanchez	01:40:55
8456	Iban Barrutia Uralde	01:40:59
8644	Alejandro Hernandez Portero	01:41:22
8824	Silvia Aguirre Franco	01:41:41
9372	Nuria Aguirre Franco	01:42:41
9648	Aritz Caballero Amas	01:43:12
9736	Ainhoa Urcola Alcalá	01:43:22
9867	Igor Olazaguirre Ugarte	01:43:37
10106	Urtzi Sistiaga Etxeberria	01:44:02

10395	Joaquin Gonzalez Garcia	01:44:33
10434	Nekane Minguez Villanueva	01:44:37
10631	Francisco Javier Mancera Roncero	01:44:57
11612	Alex Baz Uranga	01:46:39
12029	Xabier Elizetxea Lopez	01:47:25
12035	Jon Mendizabal Carrera	01:47:26
12116	Mikel Reguillaga Yubero	01:47:33
12709	Alberto Elizburu Narcue	01:48:35
12955	Aitor Cuartango Berrendo	01:49:03
13052	Leyre Barreña Goikoetxea	01:49:13
13123	Nahia Artola Olazabal	01:49:21
13449	Koldo Gonzalez Lopez de Sabando	01:49:53
13453	Olatz Lopez de Sabando Troncoso	01:49:53
14325	Enrique Miguel Garcia	01:51:14
14709	Hipolito Barreña San Juan	01:51:48
14785	Alberto Martin Del Rio	01:51:55
14843	Silvia Urbaneja Muñoz	01:52:02
15049	Ander Olasagasti Galarraga	01:52:24
15644	Muskoka Arregi Sanchez	01:53:29
16595	Alfredo Rodriguez Imaz	01:55:07
17027	Gustavo Marques Martinez	01:55:54
17287	Imanol Garin Perez	01:56:24
19078	Joseba Erkizia Itoitz	01:59:24
19095	Aiora Escudero Mendizabal	01:59:26
20042	Mikel Olasagasti Galarraga	02:01:31
20938	Juan Carlos Solana Vecino	02:03:55
21455	Idoia Alduncin Gutierrez	02:05:29
21628	Maixabel Iribarren Ezama	02:06:06
21712	Mikel Conde Correa	02:06:23
22446	Eneko Gorospe Barrio	02:08:58
22447	Unai de Juan Urbaneja	02:08:59
22450	Alejandro Conde Herrada	02:08:59
22452	Iker Osua Iglesias	02:08:59
24005	Antxon Ubiria Bergara	02:17:26
24016	Pablo Tejedor Castillo	02:17:31

SAILKAPENA		
URNIETA		
171	Juan Luis Gomez Gallego	01:12:02
183	Unai Lizeaga Apaolaza	01:12:18
273	Ander Zubizarreta Ansa	01:14:02
460	Igor Arruti Salgado	01:16:12
539	Ander Urruzola Labaka	01:17:00
764	Oier Jimenez Urdangarin	01:18:54
903	Iosu Gomez Manterola	01:19:42
943	Paul Gallo Arretxe	01:19:56
1344	Eneko Ramirez Gonzalez	01:22:41

1817	David Sierra Salamanca	01:24:58
1957	Ander Paco Garcia	01:25:40
1965	Iñaki Narbarte Garmendia	01:25:43
2056	Markel Lecea Rojas	01:26:06
2844	Iosu Lopez Niño	01:28:58
3035	Oscar Pavon Vela	01:29:29
3108	Saioa Martinez Fonseca	01:29:41
3317	Ane Arruti Loyarte	01:30:17
3511	Yeray Moreno Muro	01:30:46
4731	Mikel Garmendia Irazusta	01:34:08
5579	Maria Salaberria Telleria	01:35:54
6804	Ainhoa Jauregi Zubeldia	01:38:21
6814	Sergio Odriozola Perianes	01:38:22
6847	Asier Atxaga Armendariz	01:38:25
6918	Aitor Pecharroman Campo	01:38:32
7064	Bego Villas Miguel	01:38:46
8494	Imanol Gabarain Suarez	01:41:03
9356	Periko Juanikorena Erro	01:42:38
9368	Ion Koldobika Iribar Dieguez	01:42:41
9708	Pedro Arroyo Tamayo	01:43:20
10595	Martin Zabala Intxausti	01:44:53
10912	Norman Cuenca Gallego	01:45:25
11020	Jokin Goikoetxea Yarza	01:45:38
11588	Vicente Carmona Sanchez	01:46:36
11591	Gaizka Mayoz Etxeberria	01:46:37
11595	Iñaki Baños Osa	01:46:37
11872	Maite Galfarsoro Perez	01:47:09
13602	Paula Lopez Pereira (Ikusmen Urritasuna B2)	01:50:05
13830	Jose Luis Romero Martin	01:50:25
14585	Uxue Osa Bengoetxea	01:51:37
15546	Steven Romero Barrera	01:53:15
16017	Iosune Larrayoz Agote	01:54:09
16852	Maria Roman Revuelta	01:55:36
16862	Juan Carlos Solis Rosco	01:55:37
16986	Alex Cobo Martin	01:55:50
17679	Oihana Rebollar Nuñez	01:57:00
17733	Eloy Gonzalez Pastrana	01:57:05
19405	Enrique Campos Jimenez	01:59:59
19834	Nerea Salaberria Telleria	02:01:01
19978	Benjamin Rodenas Gallardo	02:01:22
22310	Patxi Cuenca Navas	02:08:29
22468	Beñat Goyaran Dorransoro	02:09:03
22870	Izaro Pellejero Gonzalez	02:10:49
22871	Tomax Pellejero Salaberria	02:10:50
23155	Ana Rodriguez Cantero	02:12:07
23171	Leire Sardon Barbero	02:12:13
23358	Leire Sanchez Ruiz	02:13:06
23360	Ivan Sevilla Elustondo	02:13:07

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Abuztuko azken astean Ubitarte zelaira hurbildu ginen Gorengo mailako Euskaldunako jokalarien adierazpenak biltzera. "Partidaz partida, maila berria ezagutu eta egokitu behar dugu", zioen Mara Lasak. Naroa Corralek, berriz, "astez aste lan egin behar dugu eta ea igoera berria lortzen dugun". Bada, adierazpen horiek profetia bilakatu dira neurri handi batean betetzen ari direlako. Astez aste, partidaz partida, lidergotzan dira. Lehen itzulia amaitu berritan entrenatzaileen adierazpenak jaso nahi izan ditu Aiurri astekariak. **Zazpi partidatan, sei garaipen. Abuztuan, espero zenuen hain hasiera ona izatea?**

Talde berria dugu, iaztik hamar jokalaria nituen kadete mailan aritutakoak eta beste batzuk gehiago berreskuratu ditugu. Andoaindarrak dira gehienak eta helburutzat banuen igoerako ligaxkan sartzea. Taldeari hori transmititu nion, hortik aurrera ziurtasunik ez dago, maila honetan aritzea berria baita jokalarientzat eta niretzat. Taldearen egokitzapena zein zen jakiterik ez zegoen, zalantzak baziren, baina lana egin dugu eta emaitzak lanaren ondorioz iritsi dira.

Kanpotik ikusita, maila berrira bikain egokitu zaretela dirudi.

Taldea gaztea da eta beldurra banuen, baina jokalariek duten futbol maila oso ondo ezagutzen dut eta badakit zer izatera iritsi gintezkeen.

Zein balio nabarmenduko zenituzke zure taldea definitzerakoan?

Talde bat gara, gehien-gehienak andoaindarrak, eta askok aspal-ditik elkar ezagutzen dute. Konpromisoa eskatu nien denboraldiaren hasieran eta, biak, talde izaera eta konpromisoa, lortu ditugu. Bi aldagai horiekin denboraldia uste baino errazagoa izatea espero dugu.

Erraza da jokalaria hauen entrenatzailea izatea?

Oso erraza da. 17 jokalaria datoz prestaketa-saioetara, gogotsu aritzen dira eta berdin die euria, haizea edo hotza izatea. Lehiatuz eta disfrutatuz ematen dute entrenamendua eta hori oso garrantzitsua da.

Alboan talde teknikoa duzu eta Euskaldunak joera dela dirudi: guraso diren herrikide ugari dago postu teknikoetan.

"Borrokatua izango da hastear den bigarren itzulia"

IKER LASKIBAR GORENGO MAILAKO EUSKALDUNAKO ENTRENATZAILEA

FUTBOLA Helduen mailako emakumezkoen taldea berreskuratu du Andoaingo klubak eta, Laskibar gidari dela, denboraldi hasiera bikaina egiten ari da



Iker Laskibar Euskaldunako entrenatzailea da. AIURRI

Maila honetan, staff tekniko helduagoa izan nahi nuen alboan. Gorengo mailan, adinean gora doaz, eskarmentua duen lantaldea alboan izateari garrantzia eman nahi nion. Xabi Azkuerekin eta Iban Muñozekin jarri nintzen harremanetan eta biek pozik hartu zuten erronka.

Euskaldunako komunitatea indartzeko baliagarria da, beraz, klubeko hainbat jokalariren gurasoak prestatzaile lanetan aritzea?

Garrantzitsua da kluba ezagutzea. Kanpotik etor daitekeen jendeak klubaren ezagutza har dezake, baina bertakoek klubaren balioak ezagutzen dituzte eta hori abantaila da.

Zuen taldera itzulita, zer nolako bigarren itzulia espero duzu?

Borrokatua izango da. Lehen itzulian emaitza txukunak lortu ditugu. Hobetzeko gauza asko ditugu, baina emaitzak onak izan dira. Gure multzoan, halarere, ezusteko handiak izan dira partidaren emaitzei erreparatuta eta horrek esan nahi du multzoa oso parekatuta dagoela. Partida bakoitza oso gogorra izango da, inork ez digu ezer oparituko. Borrokatu beharko dugu.

"GURE MULTZOA OSO PAREKATUTA DAGO. BIGARREN ITZULIAN INORK EZ DIGU EZER OPARITUKO"

GORENGO MAILA

7. JARDUNALDIA

Martutene - Euskalduna	0-2
Urnieta - Intxaurdi	3-2
Usurbil - Luberri	2-1
Santo Tomas Lizeoa - Zarautz	3-1

SAILKAPENA

2. MULTZOA

	P	J
1 Euskalduna	18	7
2 Usurbil	14	7
3 Intxaurdi	13	7
4 Luberri	10	7
5 Urnieta	9	7

PARTIDA

AZAROAK 15, LARUNBATA

18:00 Urnieta - Euskalduna / Urnieta

Lehen geldialdia Urnietan duzue. Urnietak badu eskarmentua ligan eta lehen jardunaldian irabazi zenuen.

Urnietaren hasiera, emaitzei dagokionez, ez zen onena izan. Baina, jokoari dagokionez, maila onari eutsi eta emaitza onak lortu dituzte. Azken jardunaldian bigarren postuan zegoen Intxaurdi garaitu zuten eta hori bada guretzat neurgailua: ez dugu lehen partidako emaitza berdina lortuko, ezta gutxiago ere. Partida zaila aurreikusten dut.

90 minutu irauten duen partidaz zer da zure taldeko jokalarientzat zailena?

Partidak luzeak egiten zaizkigu. Fisikoki mailara egokitzen saiatzen gara partidaren amaiera aldera ondo iristeko.

Taldea non egotea nahiko zenuke hemendik 3-4 hilabeteetara?

Borrokan, lehiari eta hamazazpi jokalaria zelaian entrenatzen. Horrela aurreikusten dut etorkizuna. Helburua hori da. Igoerarekin amestea oso polita da, baina lan egin behar da. Eta lana asteko prestaketa-saioetan egiten da.

Euskaldunak badu plana emakumezkoen futboleko. Egun, gazte batek ibilbide osoa egin dezake klubean.

Emakumezkoen taldeei jarraitkortasuna ematea kosta egin zen iraganean eta futbol-eskola martxan jarri denetik eredu berria txertatzen hasi zen klubean. Senior taldea osatzea lortu dugu eta hori poztasun handia da. Batez ere, garapena bertatik bertara ikusi dudalako. Jende asko hurbiltzen ari da eta pozgarria da hainbeste neska prestaketa-saioetan ikustea.

Garaipen erosoak Gipuzkoako txapelketako azken fasean

ESKUBALOIA Urnieta Lanchas Bus kadete mailako taldea denboraldi bikaina egiten ari da



Ane Kortaxarena jokalaria. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Urnieta Lanchas Bus taldea Gipuzkoako txapelketako azken fasea jokatzen ari da eta aurrekoan garaipen erosoak lortu zuen Urolaren aurka (44-24). Lan defentsibo bikaina egin zuten Urnietako Kadete mailakoek, 60 minutuetan intentsitate handiz arituz eta, horri esker, baloi asko berreskuratuz kontraerasoan irteteko. Erasoa ere maila handia erakutsi zuten. Garaipen honek urnietarrak hirugarren postuan utzi ditu, bigarren sailkatua den Ereintza taldearen

aurka jokatuko dutenaren aurretik. Igandean da, Beraungo frontoian, 11:30etik aurrera.

Urnietako Artola Harategia

Bestalde, etxeko lehen porrota jaso zuten Senior mailako Urnietako Artola Harategia taldekoek, Munttarperen aurka galdu ostean (24-29). Partida eskasa izan zen urnietarrentzat; lezotarrek etxeko defentsa behin eta berriz gaingitu zuten. Hurrengo partida Tolosako Usabal kiroldegian jokatuko dute, larunbatean, 18:00etan.

Binakako txapelketan lehen postuan da Ansa-Zubiri bikotea

Ansa urnietarraren bikotea sekulako txapelketa egiten ari da, Oriamendik zabalduetako infor-

mazioaren arabera: "Zubiri txapelketako sentsazio handienetako bat izaten ari da eta berriz ere atzean erreferente izan zen". Hiru partida eta gero bi erremontistak lider dira, eta aurrera egiteko aukera askorekin.

SASKIBALOIA Hiru partida, larunbatean, Allurralde kiroldegian

Larunbat goizean saskibaloia partidak izango dira Allurralde kiroldegian. 09:00tan Nutrieskola infantil mailako neskak ariko dira, 10:30ean Plastigaur kadete mailakoak eta, 12:15tan, Representaciones Justino jubentil mailako mutilak. Azken horiek 5. postuan sailkatuta daude junior mailako gizonezkoen partidetza ligan.

SASKIBALOIA Bigarren itzuliari ekingo dio Zurrut taldeak

Andoaingo Zurruteko lehen taldea gizonezkoen 2. mailan jokatzen ari da eta lehen itzulia hirugarren postuan amaitu du. Partida bat gutxiago dute, gainera, baina oraindik zehaztu gabe dago Luberriren aurkakoa noiz jokatuko den. Larunbat honetan Allurralden jokatuko dute Karlatzen aurka, 20:00tan hasita.

Zurrut klubak badu bigarren taldea eta horiek 3. mailan jokatzen ari dira. Aurreko larunbatean Zarautz gaingitu zuten, Andoainen (61-57). Larunbatean Hernanin dute partida, 16:00tan hasita. Sailkapenean parez pare dira bi taldeak.

FUTBOLA Jubenil mailakoen denboraldi bikaina

Euskaldunak hiru talde ditu jubentil mailan eta hirurak, une honetan, sailkapenaren gaialdean dira. Ohorezko mailan, andoaindarrek Ordizia garaitu zuten (2-3) eta, hiru puntu horiei esker, bigarren postuan dira. Igandean 13:00tan jokatuko dute Ubitarten, Hernani B liderraren aurka. Ligan ondoen ari diren bi taldeen arteko partida izango da, beraz.

Partida horren aurretik, 11:00tan hasita, Jubentilen 1. mailako Euskalduna C eta Texas B ariko dira Ubitarten. Andoaingo taldeak bere multzoko lidergotzari eutsi nahi dio.

Maila berean, 6. multzoan, Euskalduna B taldeak ez zuen partidarik jokatu. Igandean Iruenen jokatuko dute, arratsaldeko 18:00tan, Landetxaren aurka.



LUKE URNIETA

Bigarren mailan ariko dira

PILOTA Ezin izan du Gipuzkoako pilota-txapelketako 3. mailako txapela jantzi Imanol Odriozolak eta Ander Ezenarrok osatutako bikoteak. Kontuak ez ziren desio bezala ateratu: 22-7 galdu zuten urnietarrek Zestoako Sasiain-Olaizola bikotearen aurka. Dena dela, 2. mailara igotzeko txartela ziurtatuta du Urnietako bikoteak.



LUKE URNIETA



Urnietako
udala



Sorterrian, gogoan dute Amaia Agirre

MENDIZALETASUNA Zinema-emanaldia antolatu du, hirugarrenez, Zanpatuz elkarteak, orain bi urte Patagoniako Fitz Roy (3.405m) mendian zendutako Amaia Agirre mendizale urnietarraren omenez

Erredakzioa URNIETA
Mendizaletasuna oinarri, bi hitzordu izango dira Sarobe arte eszenikoen gunean, azaroaren 19an eta 20an, biak ala biak arratsaldeko 19:30ean. Sarrera librea izango da, bete arte.

"Compañeras de cordada"
Espainiako Mendi Federazioaren Emakumezkoen Alpinismo Taldeko (EFA) kide izan ziren Laia Duaigües eta Nieves Gil 2018tik 2021era. Garai hartan ezagutu zuten elkar, eta harrezkerotik lagun handi bihurtu dira eta elkarrekin gailurrik altuenak zapaldu dituzte. Haien kide Lucia Guichotekin batera, mendi ikusgarriak igo dituzte: Eigerreko ipar horma, Grandes Joraseko ipar horma, Cima Grande di Lavaredoko ipar horma, baita Indiako Himalayako eta Nepalako bazter urrunetan bide berriak zabaldu ere. Gainera, munduan eskalada-bide asko egin dituzte: Yosemiteko horma erraldoiak, Pakistango mendi basatiak, Patagoniako urruneko mendixkak eta Peruko Cordillera Blanca ospetsua dira nabarmenenak. Haien ibilbidean izen handi asko daude: Torres del Trango, Fitz Roy, Cerro Chaltén, Alpamayo, Half Dome edo El Capitan, besteak beste.

Azaroaren 19an, beren ibilbide osoaren berri emango dute (hasierako pausoetatik Perun egindako azken espediziora arte), eta gainera, Amaia Agirrerekin batera Nepaleko Rolwaling haranean bizi izan zuten espedizioari buruzko ikus-entzunezko bat ere erakutsiko dute. Espedizio horrek Espainiako alpinismo taldearen etapa bati amaiera polita eman zion.

"Abriendo Camino Vol II, Groenlandia"
Eskaladako zortzi bide berri ireki zituen FEDMEko alpinismoko emakumezkoen taldeak 2023ko abuztuan, "Abriendo camino" proiektuarekin Groenlandiara egindako espedizioan eta horietako asko Amaia Agirre urnietarra gogoan ireki zituzten. Bada, dokumentalak bidaia hori bera azaltzen du: Mythics circusen muntatu zuten kanpamentu basea eta bertan eman zuten hilabete oso bat inguruko pare-tatan.
Juan Miguel Ponceren zuzendaritzapean, goi mailako kirolarien hiru balentriak bildu dituzte, ikus-entzunezko bidez. Kapituloka dago banatuta, bidaia bakoitzeko bana. Hala, Amaia Agirre Gonzalez alpinista gogoan hartzeko bideo laburra egin zuen

FEDMEK, bertako urnietarrak Jordaniara eta Saudi Arabiara egindako jauzian utzitako irudiez baliatuta.



Zortzi bide berri ireki zituen FEDMEko emakumezkoen taldeak. JUANMI PONCE-FEDME



FEDMEko alpinismoko emakumezkoen taldea, 2023ko abuztuan. JUANMI PONCE-FEDME

Amaia Agirre eta Iker Bilbao, Fitz Roy (3.405m) mendian zendu ziren elur jauzi baten ondorioz, 2023-ko Urtarrilaren 19-an

AMAJA AGIRRE

mendi zinemaldia

2025eko azaroak 19 eta 20

19:30 | Urnietako Sarobe antzokian

19 asteazkena
Nieves Gil eta
Lala Duaigües
"Compañeras
de cordada"

20 osteguna
Amala Segurola eta
Ruth Fornos
"Abriendo Camino"
Groenlandia

Aurreko edizioetan bezala, aurten ere mendizaletasunaren arloan ezagunak diren kirolarien presentzia izango dugu eta zuzenean kontatuko dizkigute mendian bizi izan dituzten esperientziak.

Antolatzailea

Sabeslea

zanpatuz

Urdulake

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

AZOKA

ANDOAIN Larramendi Bazkuna

Gastronomia eta artisau azoka, eta tonbola. Egun osoko hitzordua.

11:00, Goikoplaza.

Azaroak 15, larunbata.

ERAKUSKETA

ANDOAIN Erakusketa

"Geometria eta haren eraikuntza-jolasak", Rakel Ubago artista eta arkitektoaren eskutik.

Bastero Kulturgunea.

Azken eguna: Azaroak 15.

DEIALDIA

URNIETA Hobekuntzak

Aurrekontu irekien partaidetza-prozesu berria martxan da. Azaroaren 14ean informazio karpa bat ipiniko du Udalak. Goizean, Etxeberri plazan eta, arratsaldean, San Joan plazan.

Azken eguna: Azaroak 16.

ODOL-EMAILEAK

URNIETA Hitzordua

Odola eman nahi dutenek telefonoz deitu behar dute egunean bertan: 943 00 78 84.

16:30-20:30, Gaztelekua.

Azaroak 17, astelehena.

ANDOAIN Ekitaldia

Bederatzi herrikide omenduko dituzte.

19:00, Udaletxea.

Azaroak 28, ostirala.



lazko sari banaketa ekitaldia. AIURRI

ANDOAIN Ipuin-lehiaketa

Martin Ugalde ipuin-lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.

18:30, Bastero Kulturgunea.

Azaroak 13, osteguna.

KONTZERTUA

ANDOAIN Hilario Rodeiro

Folklore eta jazz modernoa uztartzen ditu Galizan sortu eta Andoain bizi den musikariak.

19:30, Bastero Kulturgunea.

Azaroak 14, ostirala.

ANDOAIN Udal Musika Eskola

Talentuz beteriko emanaldian Bandako kideak bakarlarri lanetan arituko dira. Sarrera doakoa da, baina gonbidapena behar da.

12:30, Bastero Kulturgunea.

Azaroak 16, igandea.

ZIKLOA

ANDOAIN Azaroak 25

"Querer" telesailaren proiektzioa eta solasaldia, Udalak antolatuta.

18:00, Bastero Kulturgunea.

Azaroak 18, asteartea.

TXOTXONGILOAK

URNIETA "Ma Tache"

Txotxongilo emanaldia 4 urtetik gorako ikusleentzat.

16:30, Sarobe.

Azaroak 23, igandea.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Los tigres**

Larunbata, 15. 19:30.

Igandea, 16. 19:30.

Astl., 17. 17:00,

19:30.

Cuerpos locos

Larunbata, 15. 17:00.

Igandea, 16. 17:00.

Acosada

Larunbata, 22. 19:30.

Igandea, 23. 19:30.

Astl., 24. 17:00,

19:30.



SINOPSIS

Los tigres

Zuzendaria: Alberto Rodriguez. **Aktoreak:** Antonio de la Torre, Barbara Lennie, Joaquin Nuñez, Skone, Silvia Acosta, Ricardo Rocca. **Generoa:** Thrillerra, drama. **Iraupena:** 109 minutu.



Urpekariaren dilema

Antonio eta Estrella anaia-arrebak dira. Haien aita urpekaria zen, beraiek bezala. Bizitza osoa eman dute itsasoan. Antonio "Tigrea" da, urpekari garaitezina, lagun guztiek nahi duten kidea, han behean, segundo gutxitan bizia jokoan jartzen duzunean, eta hori egunero egiten duzunean. Estrellak bere anaia laguntzen du lanean dabiltzan ontzian. Hark lotzen du lurrera, izan ere, uretatik kanpo Antonio benetako hondamendia da. Beti oraina bizi izan du, inoiz biharko pentsatu gabe, eta bere egoera ekonomikoa zaila da. Antoniori istripu bat gertatzen zaio eta jakinarazten diote bere urpekari egunak laster amaituko direla. Etorkizuna ilun eta korapilatsua dirudi. Hala ere, egoera alda liteke petrolio-ontzi baten kroskoan ezkutatutako kokaina-alijo bat aurkitzen dutenean. Antonio beste aukerarik ez du ikusten, baina bere arreba Estrellak ez du argi ikusten.

JARRI TALENTUA ENPRESAREN ERDIGUNEAN

Zuzendaritza taldearen lidergoarekin, langileen ongizatea enpresaren lehiakortasunaren gakoa bihurtu daiteke. Eman izena "Lanaren Zentzua" egitasmoan!

HASILANKETA DOAN

AZKEN PLAZAK
ESKURAGARRI



Gehienez 2 hilabeterako
epen prozesua
burututa izango duzue!

enpresa@beterriburuntza.eus

943 244 523



BETERRI
BURUNTZA
Herri-entzako

LANAREN ZENTZUA

Udalak
Finan. Akordioa
Udalaren Baita
du Oporak



Udal Musika Eskolako Banda, artxiboko irudian. AIURRI

Bakarlarien unea, igande eguerdiko emanaldian

Emanaldian gogoan hartuko dute berriki hil den Arantxa Irigoras Balda Bandako kidea

Xabier Lasa ANDOAIN

Udal Musika Eskolako Bandako zenbait musikari nabarmenduko dira “Bakarlarien unea” izenburuko kontzertu berezian, igandean eguerdiko 12:30etatik aurrera. Era horretan, Bandako zenbait kidek hartuko dute protagonismoa igandeko emanaldian. Musikarien zaindaritzat hartzen den Santa Zezilia egunarekin bat egingo du Mikel Emezabalek zuzentzen duen Bandak.

Errepertorioa

Hona kontzertua osatuko duen kantutegia, bakoitzean izan diren bakarlariekin:

- *Concerto two trumpets* (Antonio Vivaldi). Bakarlariak: Ander Egaña Gaston eta Jaime Eguzkitza (tronpetak).

- *Xylophonia* (Joe Green; moldaketa, Paul Salerri). Bakarlaria: Lier Sarasola (xilofonoa).
- *Andante K.315* (Wolfgang A. Mozart; moldaketa, Mikel Emezabal). Bakarlaria: Aiala Irulegi (flauta).
- *Klezmer Fantasy* (Marcel Saurer). Bakarlaria: Martin Sanchez Otaegi (klarinetea).
- *Baghira* (Ferrer Ferran; moldaketa, Sergi Pastor). Bakarlaria: Gorka Macias (saxoa).
- *Jostailuen Sinfonia* (Joseph Haydn). Bakarlari gonbidatuak: musika tailerreko hiru garrengo ikasleak.

Arantxa Irigoras gogoan

Berriki hil da Udal Musika Eskolako Bandako kidea eta emanaldian aintzat hartuko dute klarinete-jotzailea izan zena.

Hilariorodeiro, ostiral honetan, Bastero Kulturgunean

"Pausa" diskoan jazz musika estiloko kantuak bildu ditu. Entzungai izango dira doinu horiek, 19:30ean hasita

Erredakzioa ANDOAIN

Jazz musikari gisa ibilbidea egiteko Galizako sorterrria utzi eta Andoainera etorri zen Hilariorodeiro musikaria. Aldaera gehienetan ari da, nagusiki, konposatzaile eta interprete la-

netan. Berriki, "Pausa" diskoa argitara eman du Errabal euskal diskoetxearekin. Kantu horiek ostiral honetan joko ditu Bastero Kulturgunean, iluntzeko 19:30ean hasita. Andoaingo es-prientziaz hitz egin zuen otsai-

KOMUNITATEA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA ANDOAIN

II. Andreurdiñaren Irrintzi Lehiaketarako irrintzilarien bila

Iaz hasitako "Andoaingo euskera, bihotzetik kalera" ekinaldiari jarraipena emango diogu, Azaroaren 15ean, larunbatearekin, Andoaingo Goikoplazan.

Egun osoan hainbat ikuskizun eta txapelketa egongo da. Txapelketa horien artean Irrintzi lehiaketa izango dugu aurten ere. 14 urtetik gora parte hartu nahi duen ororentzat zabalik dago izen ematea.

Antolatzaileek Euskal Herrian barrena irrintzi egiteko ohitura eta gaitasuna duten herritarrek erakarri nahi dituzte Andoaingo saiora, herriko jaietan eta hamaika kultura eta folklore ospakizunetan irrintzia botatzeko ohitura eta iaotasuna duten herritar horiek.

Jai eta umore giroan egin ohi da lehiaketa; beraz, antolatzaileek dei egin diete Euskal Herriko irrintzizaleei Andoainera arratsalde pasa etor daitezen eta parte har dezaten arratsaldean Goikoplazan bertan izango den lehiaketa honetan.

Izena ematea, aurretik eta egunean bertan

Lehiaketan parte hartzeko izena 688 718 916 telefono zenbakian eman liteke larunbatera arte, eta Andoainen bertan lehiaketa egingo den azaroaren 15ean, hasi bitartean eman ahal izango baita Goikoplazan bertan. Lehiaketa Goikoplazako oholtzan izango da, arratsaldeko 18:00tan hasita.

Gastronomia eta artisau azoka, larunbat honetan Goikoplazan

Iazko ekimen arrakastatsuari jarraipena emango dio Manuel Larramendi Kultur Bazkunak

Erredakzioa ANDOAIN

Postuz ondo hornituta egongo da plaza. Iaz bezala, Napar Bideak elkarteko hamabost ekoizle hurbilduko dira Andoainera. Baina ez dira horiek bakarrik izango. Honako hauek ere ziurtatuta

daude: Andoaingo Rbelde, Mxuk (poltsak), Artea soinean (kami-setak eta arropa), Mouxuka (lepokoak, arropa), Ilgora teak, Bejondeizula barazkiak, Iztueta esnekiak eta Zituene pasta obra-dore kooperatiboa.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Axun Gurrutxaga

Azaroaren 12an, 80 urte betetzen ditu eta gu desiatzen gaude zurekin ospatzeko. Zorionak amona! Maite zaitugu! Etxekoak

Familientzako oinarritzako euskara ikastaroak

Andoaingo Euskara Zerbitzuak antolatu du, AEK-ren lankidetzarekin. Ikastaroan familian euskaraz komunikatzeko oinarritzako gaitasunak landuko dira.

- Epealdia: azarotik ekainera, asteartero eta ostegunero, 14:45-16:15 artean.
- Informazioa: 943 59 17 04.

Azaroak 15, larunbata Egitaraua

Ekitaldi osagarririk ez da faltako Goikoplazan:
11:00 Azoka irekiera.
12:30 Anuk eta Elene zuzenean.
16:30 Toka-txapelketa.
18:00 Irrintzi-txapelketa.
19:00 Komerik erromeria.

Tonbola

Euroko laguntza ematen dutenen artean, ehunka sari banatuko dituztela iragarri du antolaketa-taldeak.



Sarrerak agortu dira eta otsailean bigarren emanaldia emango du Rodeirok. AIURRI



errigora

errigora.eus



Ezinbestekoak

euskararentzat Agerrean



agerraldia
euskaraz plaza

aek



IKASTOLAK



Sortzen

urriak 23 - azaroak 13

Eskatu **Nafarroa erdi eta hegoaldeko** produktuz beteriko saskiak eta eman balioaren **%25 zonaldeko euskalgintzari**



Saski beltza 60€



Saski berdea 65€



Saski gorria 75€